

# ENPRESEN konfiantza

2023KO 3. HIRUHILEKORAKO  
AURREIKUSPENAK

Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa



LABORAL  
kutxa


# 2023KO 3. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK



## 0 | INGURUNEA


LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2023ko hirugarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Aurreko hiruhilekoaren antzeko ingurune ekonomikoa erakutsi dute emaitzek.

INGURUNE EKONOMIKOARI buruzko enpresen aurreikuspenei dagokienez, % 13,7k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 60,7k uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 25,6k, okerrera egingo duela.




# 1 | FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, berriz, aurreko hiruhilekoan baino ikuspegi ezkorxeagoa dute enpresek 2023ko hirugarren hiruhilekoari begira. Zehazki, galdetutako enpresen % 23,7k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 51,7ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 24,6k okerragoa izango dela aurreikusten du.




## 2 | JARDUERA

Aurreko adierazlearekin bat, eta 2023ko hirugarren hiruhilekoan espero den JARDUERAREN bilakaeraren aurrean, % 19,9ren iritziz hobera egingo du, eta, % 26,5en arabera, okerrera. Gainerako % 53,6aren ustez, jardueran ez da aldaketarik izango.




### 3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortu zaigu: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek, hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, emaitzek iragartzen dute eskariak murriztu eta prezioak igo egingo direla. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun diotenen % 20,9ren iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 24,2ren iritzian, txikitu. Enpresen % 55,0ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




## 4 | PREZIOAK

Era berean, PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 19,0k espero du igo egingo direla, eta % 69,2k, bere horretan jarraituko dutela.



## 5 | ERRENTAGARRITASUNA

Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspeni erreparatuta, erantzunen % 85,8ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da; enpresen % 14,2k soilik espero du etekin handiagoak lortzea.






## 6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek ikuspegi ezkorragoa erakusten dute hirugarren hiruhilekorako, aurrekoarekin alderatuta. Hala, jarraian ikusiko dugunez, badirudi enpresek ez dietela inbertsio-planei bultzadarik emango.

INBERTSIO-bolumenari dagokionez, enpresen % 12,8k uste du gora egingo duela 2023ko hirugarren hiruhilekoan. % 15,2ren iritziz, berriz, behera egingo du inbertsio-bolumenak. Hortaz, galdetutako enpresen % 72,0 inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago.



## 7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 76,8k erantzun du ENPLEGUAn ez duela aldaketarik espero; % 14,7k langile-taldea handitzeko itxaropena du, eta % 8,5ek guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2023KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



## 8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazle guztiak (inguruneari buruzko iritzia izan ezik) gehitu eta haztatzen baditugu konfiantza-indizea ateratzeko, emaitza hau lortuko dugu: **49**. Beraz, jaitsi egin da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (**52,7**). Horrek esan nahi du enpresek ekonomiaren bilakaerari buruz duten ikuspegia ezkorra dela —ia neutroa—, **2023ko hirugarren hiruhilekoari** begira. Indizea 50 puntutik behera egoteak uzkuertze-eremuan gaudela adierazten du. Datu hori txikiagoa da beste esparru geografiko interesgarri batzuetakoa baino, hala nola Espainian eta eurogunean lortutakoa baino (apirileko datuak, hurrenez hurren: 56,3 eta 54,1).

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 22,0k uste du hobetu egin direla, eta % 26,0k, okertu egin direla. Beraz, % 52,0k uste du atzerriko salmentek berdin jarraitu dutela.




## 9 BERRIKUNTZA ETA I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZAri edo I+Gko EKIMENEi bideraturiko salmenten ehunekoari dagokionez, inkestatuen % 82,0 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 3,3k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




## 10 | BEZEROEI KOB RATZEKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 78,7ren ustez, bezeroei KOB RATZEKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 15,2ren esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 6,2k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



## 11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA


Amaitzeko, inkestaturen % 73,0k erantzun du bankuen FINANTZAKETA ESKURATZEKO AUKERAK berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresen artean, % 4,7k dio hobetu egin dela, eta % 22,3k, lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




## 12 | NEXT GENERATION FUNTSAK

Next Generation funtsek industria-sarea berroneratzeko duten garrantzia ikusita, beste bi galdera erantsi dira inketan honetan: alde batetik, galdetutako enpresek funts horiek ezagutzen ote dituzten eta, bestetik, eskuratu ote dituzten. Ikus daitekeenez, enpresen %73,5ek ezagutzen du plana, baina % 13,5k besterik ez du esan funts horien onuradun izan daitekeen proiekturen bat duela.

Next Generation Funtsek ezagutzea



Next Generation Funtsek eskuratzeko






A large, stylized, 3D-effect logo consisting of the letters 'G' and 'V' in a dark grey color, positioned in the background on the right side of the slide. The 'G' is a thick, rounded letter, and the 'V' is a thick, sharp letter. The background is a light grey gradient.

# 2023AN ADIERAZLEAK IZAN DUEN BILAKAERAREN LABURPEN-GRAFIKOA

## 12 | ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzialen eta osoen balioak ikus daitezke.



# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

-EAEko 215 enpresek erantzun dute inkesta.

-Maiatzaren 4tik 23ra egindako inkestak.

---